



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 2a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A :

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da “analfabetismo digitala desagerrarazteko prestakuntza-ekintzen eta gaitasun digitalen plan” bat ezar dezan. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da populazioaren azterketa xehatua diseina eta gauza dezan, sexu-prestakuntzari eta -hezkuntzari dagokienez zer premia dituzten jakiteko. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak planteatutako premia nagusiak ase ditzan. Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da 2/2021 Foru Agindua alda dezan eta berariaz adieraz dezan ezin izanen dela lokalen barrualdea erabili apustu-makinetan edo txanpon-makinetan aritzeko. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen dira toki entitateek Europar Batasunaren Suspertze Funtsean izanen duten parte-hartzea izan dadin toki administrazioak gastu publikoan duen parte-hartzearen proportzionala. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da LOMLOEn “eskari soziala” sar dezan hezkuntza-plangintza egiteko oinarritzko irizpide gisa. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu plan bat onets dezan maiatzaren 1a baino lehen ordezkartza handiena duten sindikatuekin eta enpresaburuekin. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Gorte Nagusiak premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetu ditzaten. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetzea (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da kanabisaren nahiz haren eratorrien kontsumoa eta kontsumorako edukitza despenaliza dezan. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua egokitu dezan, ekidite aldera kontratazio publikoan hura abusuzko moduan eta proportziorik gabe interpretatzea. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Estatuko gobernua premiatzen dira toki entitateek Europar Batasunaren Suspertze Funtsean izan beharreko parte-hartzea izan dadin toki administrazioak gastu publikoan duen parte-hartzearen proportzionala. Mozioa erretiratzea (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Osasunaren Lurralde arteko Batzordean onetsi dezan Lyme gaixotasuna nahitaez aitortzeko gaixotasuna dela. Mozioa erretiratzea (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Tracasa Instrumental SL enpresa publikoak Trabajos Catastrales SAri egindako kontratazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, etxebizitzak eraikitzeko eta zaharberritzeko zerbitzu publiko bat abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Mina Muga proiektua leheneratzeko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Ikaselkar argitaletxearen Txanela Proiektuko testuliburuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.3 artikulua ez betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Trenasa enpresak jasotako dirulaguntza publikoei eta Vectia enpresan egindako inbertsioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, baheketa masiboak egiteko irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, energia berriztagarria sortzeko plantak paratzea modu ordenatuan sustatzeko xedez tresna publiko bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 1/2021 Foru Lege-dekretua, urtarrilaren 13koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Osoko Bilkurak baliozkotu du (28. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da “analfabetismo digitala desagerrarazteko prestakuntza-ekintzen eta gaitasun digitalen plan” bat ezar dezan.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa EcheGARAY jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “analfabetismo digitala desagerrarazteko prestakuntza-ekintzen eta gaitasun digitalen plan” bat ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa EcheGARAY jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “analfabetismo digitala desagerrarazteko prestakuntza-ekintzen eta gaitasun digitalen plan” bat ezar dezan.

COVID-19ak eragindako pandemiak azkartu egin du gure gizartea aspalditik bizitzen ari den eraldatze digitala. Konfinamenduan, teknologia berriek ezinbesteko eginkizuna izan zuten lanean eta ikasten jarraitu ahal izateko, bai eta gure gertukoekin harremanetan egoteko ere.

Digitalizazioak ez du atzera bueltarik eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) garapena geldiezin da: telelanak orain artekoa baino eginkizun askoz garrantzitsuagoa hartu du, are gehiago, arautzen ere ari da; Administrazioa modu erabat elektronikoa baterantz doa, paperaren erabilera desagerrarazteko xedez; negozioak egokitu egin dira eta beren produktuak eta zerbitzuak Internet bidez eskaintzen eta saltzen hasi dira; teknologia berrien erabilera hezkuntzan, bai irakaskuntzan bai on-line azterketa ez presentzialetan; banka elektronikoaren bidezko kudeaketak, bulego fisikoetara joan beharrik gabe, eta abar.

Gaur egun, Nafarroako gizartearen gehiengoa gai da teknologia berriak eskuratu eta haiekin traba handirik gabe moldatzeko. Gehienek smartphonak erabiltzen dituzte, zeinak benetako sakelako ordenagailu eramangarri bihurtu diren; izan ere, ahalbidetzen digute berehalako mezularitzarako aplikazioen –WhatsApp edo Telegram– bidezko komunikazioa, gure sare sozialak –Twitter, Facebook edo Instagram– erabiltzea, bankuko zuzemenak egitea, gure musika gogokoena entzutea, egunean zenbat urrats egin ditugun jakitea edota gure etxea domotikaren bidez kontrolatzea. Hori guztia ohikoa da herritar gehienentzat.

Baina, tamalez, gizartearen zati batek zailtasun asko ditu hori guztia egin ahal izateko. Gure erkidegoan bada analfabetismo digitala, eta hura ezabatzeko beharrezkoak diren tresnak jarri behar dira abian. Analfabeto digitala da bere jarduera pertsonal, profesional eta hezkuntzakoak teknologia edo baliabide digitalak erabili gabe egiten dituen; hala, bere ekintzak nagusiki irakurketarekin eta idazketarekin zerikusia duten baliabide tradizional eta zehatzetara mugatzen dira, zeinetarako arkatza eta papera erabiltzen baitituzte

batik-bat, eta ez dira gai XXI. mendeko gizarte digitalean erabat integratzeko.

Alfabetizazio digitala ez da soilik gailua erabiltzen jakitea; aldiz, bada ere ulertzea gailuaren erabilerak nola hobetu dezakeen gure bizimodua eta nola areagotu dezakeen gure ekoizpen-maila eta xede horietarako aplikatzea. Horretarako, beharrezkoa da gutxieneko abilezia batzuk eta gaitasun batzuk eskuratzea: gailu teknologikoak erabiltzen ikastea, haien erabilera ulertzea, lagungarriak izan daitezzen eta eduki digitalak sortzea.

Nafarroan, talde kaltetuenetako bat adinekoe-na da; izan ere, oso isolatuta sentitu dira konfinamenduan. Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokiak eginiko ikerketa baten arabera, 70 urtetik gorako pertsonen % 71k ez du zuzemen telematikorik egiten inoiz.

Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, 75 urtetik gorako nafarren artean gehien erabilitako informazioaren teknologietako zerbitzua WhatsApp da –soilik % 12k erabiltzen dute–, eta horren atzetik daude egunkariak edo gaurkotasuneko aldizkariak irakurtzea (% 9), osasun bezalako gaiei buruzko informazioa bilatzea (% 7) eta posta elektronikoen erabilera (% 6). Beste jarduera batzuk, hala nola banka elektronikoa, online ikaskuntza edo fitxategi pribatuak gordetzeko webeko biltegiren baten erabilera % 2tik behera geratzen dira.

Adineko pertsonen gehien nabarmentzen duten alderdietako bat da “beldurra, kezka eta segurtasun falta” ematen diela NANaren zenbakia edota kontu korrontearena bezalako datu pribatuak sartzek, “nori ematen ari zaren jakin gabe”.

Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, 2020ko urtarrilaren 1ean 70 urtetik gorako 96.724 pertsona zeuden Nafarroan; horrek populazio osoaren (660.887 pertsona) % 14,63 egiten du.

Baina, analfabetismo digitalaren arazoak ez die eragiten soilik adineko pertsoneri; izan ere, aintzat hartu behar dira, baita ere, desgaitasunen bat duten pertsonak eta prestakuntza gutxiko pertsonak, alde batera utzita beren adina.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean ezar dezan “analfabetismo digitala desagerrarazteko prestakuntza-ekintzen eta gaitasun digitalen plan” bat, zeina Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak sustatuko baitu, Hezkuntza Departamentuaren eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren lankidetzarekin, desgaitasunen bat duten pertsonak ere kontuan hartzeko.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da populazioaren azterketa xehatua diseina eta gauza dezan, sexu-prestakuntzari eta -hezkuntzari dagokienez zer premia dituzten jakiteko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita populazioaren azterketa xehatua diseina eta

gauza dezan, sexu-prestakuntzari eta -hezkuntzari dagokienez zer premia dituzten jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Sexu- eta ugalketa-osasuna pertsonaren garapen fisiko, psikiko eta sozialaren berezko zatia da; hori dela eta, osasun publikoaren gainerako alorretan bezala, osasun-jarduketa bideratu behar da bai arriskuak gutxitu eta gaixotasunari aurrea hartzera, bai norberaren zaintza bultzatzera eta sexualitatearen kontzepzio harmoniko, arduratsu eta pozgarria sustatzera, osasunaren osagaietako bat den heinean, modu normalizatuan, estigmatik eta diskriminaziorik gabe. Eskubide horiek Kairoko eta Beijingo Konferentzian adierazi ziren, eta nazioartean aitortuak izan dira. Herrialde asko beren gain hartu dituzte, bai eta Europako Kontseiluak ere. Horiek guztiak dira pertsona guztientzako askatasunean, duintasunean eta berdintasunean oinarrituriko giza eskubideak.

Gure inguruan, legerian islatu dira, bai estatu-koan bai autonomia erkidegoetakoan. Hala, Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoan eta 103/2016 Foru Dekretuan, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duenean, espresuki aitortzen dira aipatu eskubideak.

Sexu-hezkuntza da helburu horiek lortzeko tresnetako bat. Sexu-hezkuntzak sexualitatearen irudi bat transmititu eta landu nahi du, sustatu beharreko balio gisa ulertuta, eta eginaren eta izanaren arteko nahasteak saihestuz. Sexu-hezkuntzaren eginkizunak, bai eta hezitzaileek egiten

duten lanak ere, ez du beti aitortzarik jasotzen, eta ez da erraz egokitzen osasun arloko egituretan.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Eremu desberdinetako populazioaren ikerketa xehatua diseina eta gauza dadin, eremu bakoitzeko biztanleek sexu-prestakuntzari eta -hezkuntzari dagokienez zer premia dituzten jakiteko eta langile horien plantillak benetako beharretara egokitzeko, eta sexu-hezkuntzako eta sexologiako berariazko prestakuntza eskatu dadin lanpostu horiek eskuratu ahal izateko.

2. Lan-esparruak sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroetatik haratago zabaltzea, Oinarrizko Osasun Laguntzara, sistemaren oinarrian egon daitezen, herritarrei gertutasuna eta sarbidea errazte aldera.

3. Gazteekin eta bereziki gazteei zuzenduriko jarduketak bultzatzea Nafarroako osasun barruti guztietan. Baina bai eta askotan aintzat hartzen ez diren populazio-sektoreei zuzendurikoak ere: desgaitasuna edo bestelakotasun funtzionala duten pertsonak, pertsona migranteak, adinekoak eta abar.

4. Foru agindu baten bidez garatu zen Sexu- eta ugalketa-osasunaren Batzorde Teknikoa berrabiaraztea, tresna egokia baita sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen 103/2016 Foru Dekretuan planteatzen diren gai guztiak garatzeko.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 26an.

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo Mateo, Ana Ansa Ascunce, Mikel Buil García eta Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak planteatutako premia nagusiak ase ditzan.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak planteatutako premia nagusiak ase ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean eztabaidatzeko:

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren eta Foru Komunitateko gainerako organo judizialen jardueren 2019ko Memoriak, 2018ko ekitaldiari buruzkoak, eremu horretako jarduera aztertzen du, eta, aldi berean, organo eta plaza judizialak, plantillakoak, eta baliabide materialak nahiz giza baliabideak sortzeko beharrak jasotzen ditu.

Ilido horretan, Gobernu Salak berak 2020ko martxoan erabaki zuen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari jakinaraztea zeintzuk diren gai nabarmenenak eta beharrezkoenak:

a) Nafarroako Probintzia Auzitegiko 3. sekzioan magistratu-plaza bat sortzea, seigarrena, Nafarroako organo zibil guztien apelazioak aztertzen dituen organo bakarra denez gero, sartzen dituen auzien gorakadari erantzuteko.

b) Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salako magistratuaren hirugarren plaza hornitzea, Espainiako auzitegi nagusien inguruko egoera bakar eta apartekoari amaiera emateko.

c) Iruñean merkataritza-arloko bigarren epaitegi bat sortzea; izan ere, esparru horretan lan-zama % 200 ingurukoa da, eta, ziurrenik, eta egungo egoera ekonomikoa ikusita, haren zenbakiak handitu egingen dira etorkizun hurbilean.

d) Lurralde atxikipeneko epailearen plaza sortzea, laugarrena, aldi baterako errefortzu bat edo lanpostu huts bat betetzea behar duten organoei atxikitzeko.

Dokumentuak berak jasotzen duen bezala, denok konturatzen gara funtsezkoa eta oinarrizkoa dela, zalantzarik gabe, epaile-kopuru egokia eta diseinu organiko egokia izatea Justizia Administrazioaren eraginkortasuna guztiok nahi duguna izan dadin lortzeko.

Eskari horien eskumena foru-administrazioarena da, baina horiez gain beste batzuk ere badaude, bakar-bakarrik Nafarroako herriaren ordezkarien borondate politikoaren mende.

Besteak beste, honako premia hauek aipa ditzakegu: 7.000 biztanletik gorako bake-epaitegiei eta bake-epaitegien idazkaritzen elkarteei baliabide informatikoak ematea; bitarteko langileei prestakuntza ematea Avantius kudeaketa prozesaleko sistemarekin lotutako gaietan; Justizia Administrazioako legelariei ordenagailu eramangarriak ematea, telelana egin ahal dezaten; edo Justizia Jauregia handitzea, etorkizun hurbilean zerbitzu edo organo berriak abian jarri ahal izateko gai izan dadin.

Zoritxarrez, departamentu berri bat sortu ondoren, María Chivite buru zuen gobernuan hasiera batean gai horretan ustez egonen zen anbizioaren ondotik etsipena etorri da, zeren eta ikusi baita gobernua sostengatzen duten alderdi politikoen zat ez dela lehentasunezkoa gure komunitateko Justizia Administrazioa hobetzea.

Hori dela eta, Nafarroako 2021erako aurrekontuei buruzko eztabaida etsigarria egin ondoren – izan ere jaitsi egin da justiziarako aurreikusitako aurrekontua aurreko ekitaldian esleitutako kopuruarekiko ehunekotan –, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ase ditzan Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak planteatutako premia

nagusiak, Foru Komunitateko herritar guztientzako justizia arinagoa eta eraginkorragoa lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bizi dugun egoera ekonomiko korapilatsua aitortu arren, Justiziaren arloan aurrekontu-ahalegina egin dezan, gure erkide-

goa 2022an hurbildu dadin beste autonomia-erki-dego batzuek arlo horretara bideratzen duten ehu-nekora.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da 2/2021 Foru Agindua alda dezan eta berariaz adieraz dezan ezin izanen dela lokalen barrualdea erabili apustu-makinetan edo txanpon-makinetan aritzeko.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2/2021 Foru Agindua alda dezan eta berariaz adieraz dezan ezin izanen dela lokalen barrualdea erabili apustu-makinetan edo txanpon-makinetan aritzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantza Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken hilabeteotan Nafarroako Gobernuak arau ugari onetsi ditu, arautze aldera eremu publiko eta pribatuen erabilera, kontaktu soziala murrizteko, COVID-19aren kutsatzeen prebentzioari begira. Neurri murriztaile horien artean

dugu ostalaritzako establezimenduen barruan kontsumitzearen debekua, indarrean dagoen urtarrilaren 20ko 2/2021 Foru Aginduak ezartzen duen bezala. Zehazki, aipatu foru aginduaren 3.1 puntuak, "Establezimenduen barnealdeak" izenekoak, honako hau dio: "Debeku da kontsumitzea taberna berezi, ikuskizunetarako kafetegi, taberna, kafetegi eta jatetxe gisako lizentzia duten Nafarroako Foru Komunitateko establezimenduen barnealdean"

Testuinguru horretan, nahiz eta arauak ez aipatu ostalaritzako establezimenduen barnealdea erabiltzeko aukera, ematen du Barne Zuzendaritza Nagusiaren menpean dagoen Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atalak interpretatu duela jarduerak egin daitezkeela, debekatzen ez direlako., Egun indarrean dagoen araudiak baimentzen du, halaber, joko-makina, apustu, joko eta bingo aretoen jarduera, 21:00etara eta gehieneko edukieraren % 30arekin.

Horiek horrela, apustu-etxeen aurkako plataformek eta Aralar-laguntza emateko eta ludopatiaren prebentziorako elkarteak erabateko desadostasuna adierazi dute arlo horretan dagoen permisibitatearekin, bai COVID-19aren kutsatzeen prebentzioaren aldetik, bai eta jokoarekiko adikzioaren eta ludopatiaren prebentzioaren beraren aldetik ere, larriagotze bat gerta daitekeelako pandemiaren testuinguruan.

Beraz, ez dirudi logikoa denik establezimenduen barnealdea erabili ahal izatea bakar-bakarrik txanpon-makinetan jokatzeko eta ez barruan kontsumitu gabe eserita egon kartetan aritzeko, esate baterako, edo bingo- edo apustu-aretoetan, eremu itxiak eta kanpotik ikusezinak izanik kontrolatzen zailak baitira, beren jarduera garatu

ahal izatea normaltasunez, besterik gabe edukiera eta ordutegia murriztuz.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, 2/2021 Foru Agindua alda dezan eta berariaz adieraz dezan, "Establezimenduen barnealdeak" izeneko 3.1 puntuan, ezin izanen dela lokalen barrualdea erabili apustu-makinetan edo txanpon-makinetan aritzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, berrius ditzan bingo eta apustu areto eta lokalen barnealdeari aplikatzen zaizkion araudi eta neurri murriztaileak, COVID-19aren prebentziorako neurri gisa, eta benetan betetzen direla bermatzen duten kontrol-neurriak areagotu ditzan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Arantza Izurdiaga Osinaga

Mozioa. Horren bidez Nafarroako eta Estatuko gobernua premiatzen dira toki entitateek Europar Batasunaren Suspertze Funtsean izanen duten parte-hartzea izan dadin toki administrazioak gastu publikoan duen parte-hartzearen proportzionala.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Estatuko gobernua premiatzen baitira toki entitateek Europar Batasunaren Suspertze Funtsean izanen duten parte-hartzea izan dadin toki administrazioak gastu publikoan duen parte-hartzearen proportzionala.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2021eko otsailaren 4ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Aurrekontu Egonkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa onetsi zenetik, udal

askok salatu izan dituzte arau horren ondorioak; izan ere, gure toki entitateen ahalmen ekonomiko eta finantzarioa uzurtu besterik ez du egin. Udalek beren funtsak Ogasun Ministerioari lagatzea dela-eta eman zuten ezetzaren ondorioz, ministro horrek azkenean malgutu egin behar izan zituen 2019ko superabita inbertitze aldera udal gastua 2020an areagotzeko bideak.

Inoiz baino beharrezkoa izateaz gain toki entitateek eskueran dituzten baliabide guztiak zirkulazioan paratzea krisi honen ondorioei aurre egitearren, ezinbestekoa da ohiz kanpoko funtsak helaraztea beste administrazio batzuetatik, hala Estatutik nola autonomia erkidegoetatik, eta toki entitateak aintzat hartuak izatea Europako Suspertze Funtseko baldintzak behin betikoz taxutzen direnean. Akordio horrek helburu du toki-gobernuek jaso ditzatela helarazten diren funtsak, modua izan dezaten suspertze ekonomikoari laguntzeko, gainerako administrazio publikoekiko koordinazioan.

Oroitaraz dezagun Espainiako Gobernuaren eta Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioaren arteko Akordioak, 2020ko abuztuaren 4koak, mugikortasun jasangarria, hiri agenda eta kultura zaindu eta aldezteko politikak garatze aldera udaletatik laguntzekoak, honako hau dioela hamahirugarren apartatuan: "Behin Europar Batasunaren baitan onetsiriko Suspertze Funtseko baldintzak zehazturik, aztertuko da nola bermatu toki entitateek parte hartu ahal izatea jasotzen

diren funtsen onuradun bezala”. Horregatik, uste dugu toki entitateei esleituriko diru-kopurua kokatu beharko litzatekeela toki administrazioak Estatuko gastu publikoan izan beharreko partaidetzan, honako hauetara bideratuta: toki-mailako hiri-agenden alorreko jardueri ekitea, hiri-mugikortasun jasangarrirako planak, hiri-digitalizazioa, ikastetxeen mantentzea, ur-horniduren berrikuntza, hondakinen tratamendua, ingurumen-babesdun esparruetako ekintzak, jendearen erabilerarako altzari eta ekipamendu publikoak osasun-segurtasunaren premiei egokitzea, gune publikoen eraberritzea, eraikin eta instalazio publikoen energia-efizientzia hobetzea eta gizarte, kultur eta kirol ekipamenduak sortzea, besteak beste.

Gainera, toki administrazioa eta haren administrazio-egitura dira ahalbidetzen dutenak lurralde eta gizarte osoari hurbiltasunik eta efizientziarik handieneko baldintzetan ematea zenbait zerbitzu. Laburbildurik, toki-sektorea Nafarroaren susperraldiari begira lagungarri izan beharrekoa da, baina ezin du halakorik lortu bere baliabide propioekin bakarrik, baizik eta bere ahalmen operatibo eta exekutibo guztia horretara ipinirik egin behar du; horretarako, ezinbestekoa da sektoreari bitarteko

berriak esleitzea, harentzako baliabide gehigarriak bideratuz.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen ditu toki entitateek Europar Batasunaren Suspertze Funtsean izanzen duten parte-hartzea izan dadin toki administrazioak gastu publikoan duen parte-hartzearen proportzionala, Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioarekin iritsitako konpromisoan oinarriturik.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du zehaztu dezan nola banatuko diren toki entitateen artean Suspertze eta Erresilientziaren Mekanismoko funtsak, Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera ezarriko dituen lehentasunei arlo hauetan jarraikiz: gizarte-politika, enplegu-sustapena, kultura eta kirola, ingurumena eta komunitate-ongizatea, hirigintza eta etxebizitza, herritarren mugikortasuna eta segurtasuna, osasungintza eta hezkuntza, eta toki-eragineko beste jarduketak batzuk.

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da LOMLOEn “eskari soziala” sar dezan hezkuntza-plangintza egiteko oinarrizko irizpide gisa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita LOMLOEn “eskari soziala” sar dezan hezkuntza-plangintza egiteko oinarrizko irizpide gisa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Aniztasuna da gizarte demokratiko baten lehen bermatzailea. Herritarrek beren bizi-proiektuen funtsezko alderdiei buruz erabakitzeke duten gaitasuna, eskubideen, betebeharren eta giza eskubideen errespetuaren oinarrizko esparru baten barruan.

Espainiako bezalako gizarte batean, askotarikoa eta demokratikoa, bizikidetzaren bermatzen da parte-hartzearen eta ideiei buruzko eztabaidaren eta tolerantziaren bidez. Horregatik, gurea bezalako gizarte baterako eskolarik egokienak anitza,

doakoa eta unibertsala izan behar du. Hori posible izateko, beharrezkoa da hainbat ikastetxe egotea hezkuntza- eta pedagogia-proiektu propioak dituztenak, eta ikastetxeek autonomia izatea proiektu horiek eskuratu eta praktikan jartzeko.

Aniztasuna askatasunak baliatuz bermatzen da, politika, pentsamendu eta iritzi arloko aukera desberdinak aukeratuz, eta, batez ere, askatasun horretaz baliatuz familia bakoitzak bere seme-alabentzat nahi duen hezkuntzari buruz erabakitzeko aukeraren bidez.

Itunpeko irakaskuntzak eredu plural, heterogeneo eta inklusiboa ahalbidetzen du. Hezkuntza publiko anitza eta kalitatezkoa nahi dugu, baina hori ez da lortzen irakaskuntza itunduaren eta haren proiektu-aniztasunaren aurkako legeak eginez. LOMLOEk, onarpen prozesuari buruz sumatzen den interbentzionismoan islatuta, irakaskuntza itundurarekiko erakusten duen areriotasunak aukera-desberdintasuneko agertokia sortzen du guztiontzako eskuragarria izanen den irakaskuntza anitza nahi duten familientzat.

Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua oinarritzko eskubide hori biltzen du, hain zuzen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak berresten duena (26.3 art.). Halaber, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak, 2. artikuluan, edo EBko Oinarritzko Eskubideen Gutunak, 14. artikuluan, eskubide hori jasotzen dute. Testu horiek guztiek oinarritzko bi gai azpimarratzen dituzte:

1. Pertsona orok dauka hezkuntzarako eskubidea.

2. Estatuak errespetatu egiten dute gurasoek beren erlijio, filosofiako eta pedagogiako sineseen arabera beren seme-alaben hezkuntza eta irakaskuntza aukeratzeko duten lehentasuneko eskubidea.

Lege-proiektu hau izapidetzen hasi zenetik, Celaá ministroak aurreratu izan du, familiek beren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza erabakitzekeo duten gaitasuna dela-eta egin duen kanpaina, zein den PSOE/Podemos koalizio-gobernua-jarrera lege berri honek gure herriarentzat nahi duen hezkuntza-sistemaren ereduari buruz.

Hezkuntzaren agertoki horrek hezkuntza-eredu bakarra lortu nahi du, ez publikoa, baizik eta esta-

tukoa, eta eredu horrek eskari soziala ezabatzen du hezkuntza-eskaintza planifikatzeko irizpide gisa, eta bidea ematen du administrazioak ikasleak banatzeko edo eskolatzea zentralizatzen du, hura familien eskubidearen gainetik jarriz.

Izan ere, LOMLOEk, "hezkuntza publikorako eskubide" bat asmatzen du, egungo eskubide bakarra "hezkuntzarako eskubidea" den arren, eta zuzenean erasotzen dio Nafarroan ikasleen ia % 40ri arreta ematen dion hezkuntza-sektore bati, irakaskuntza publikoari arreta eskusiboa eskainiz sektore hori desagertzera kondenatzen baita.

Hezkuntza-administrazioak hasiera-hasieratik eragozten badu aukeratzeko askatasuna, onarpen-sistema baldintzatuz, eta aukeratzeko utzi beharrean ikasleak esleitu nahian, erabatekoa da konstituzio-zuzenbidearen aurkako eraso, familiek seme-alabentzat nahi duten hezkuntza aukeratzeko eskubideren aurkakoa.

Horregatik guztiagatik:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du LOMLOEn "eskari soziala" sar dezan hezkuntza-plangintza egiteko oinarritzko irizpide gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du berma dezan seme-alabentzat nahi duten hezkuntza motari buruz erabakitzekeo familiek eduki beharreko askatasuna, ikastetxe publikoetan eta itundueta behar beste plaza jarriz eta Espainiako eta Nafarroako hezkuntza-sisteman bi irakaskuntzek, publikoak eta itunduak, egiten duten lan garrantzitsua aitortuz, zeren eta proiektu pedagogikoak askotarikoak izateak aniztasuna bermatzen baitu eta gizarte guztiz demokratikoaren oinarriak jartzen baititu.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du irakaskuntza bereiziko ikastetxeekiko itunak bermatzen jarrai dezan, zeren eta Konstituzio Auzitegiak horri buruzko epaiak eman baititu, esate baterako 31/2018 epaia, zeinetan ikastetxe horiei hezkuntza-itunak eskuratzeko eskubidea aitortzen baitaie.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu plan bat onets dezan maiatzaren 1a baino lehen ordezkariak handiena duten sindikatuarekin eta enpresaburuekin.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enplegu plan bat onets dezan maiatzaren 1a baino lehen ordezkariak handiena duten sindikatuarekin eta enpresaburuekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Jasaten ari garen osasun-krisia krisi ekonomiko larria eragiten ari da, zeina enplegua suntsitzen ari den eta aberastasuna eta ongizatea sortzeari eragiten dion, baita etorkizunean eraginen ere.

Izan ere, iaz, biztanleria aktiboaren inkestaren arabera, enplegu asko suntsitu ziren Nafarroan: 9.300 landun gutxiago daude, eta langabezia-tasa 2,64 puntu igo da (ehuneko 11,65 da gaur egun); hori dela eta, langabezia-tasa txikiena duen erkidegoa izateari utzi dio Nafarroak, eta hiru autonomia-erkidegok gainditu dute.

Egoera horretan, funtsezkoa da gure ekonomia berraktibatzeke neurriak hartzea, produkzio-sareari eta, bereziki, krisi hau gehien jasaten ari diren sektore guztiei lagunduko dietenak.

Legegintzaldia hasi zenean, Nafarroako Gobernuak lehendakariak bere gobernuaren lehentasun nagusietako baten gisara aurkeztu zuen eragile ekonomiko eta sozialekin adostutako enplegu-plan bat onestea.

Urte eta erdi geroago ere, plan hau ez da oraindik onetsi, eta hori jasanezina da gaur egungo egoeran. Nafarroako gizarteak ezin du gehiago itxaron enplegu gehiago suntsitzea saihestuko duen eta kontsumoa eta jarduera ekonomikoa berreskuratzeko bidean —eta, beraz, enplegua berreskuratzeko bidean— jarriko gaituen plan bat edukitzeko, zerbitzu publikoak indartzeko eta hobetzeko funtsezko elementuak diren heinean.

Bestalde, ekonomiaren aldeko bere apustuan Nafarroako Gobernuak hartu dituen neurriak, zalantzarik gabe, ez dira nahikoak. Krisi honetan gogor kolpatutako kolektiboentzako zuzeneko laguntzak ez datoz bat talde horien eskariekin, eta hori bereziki kezagarria da egoera eta aurreikuspen ekonomikoak larriagotzen ari diren une honetan.

Aurrekoari Gobernuak hainbat zerga-figuraren bidez ezarritako presio fiskalak gora egin izana gehitu behar zaio. Bereziki, zenbatespen objektiboko sistema edo moduluak ezabatzea, langile autonomoentzat unerik gogorrean eta delikatuenean.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du maiatzaren 1a baino lehen enplegu-plan bat onets dezan, ordezkariak handiena duten sindikatuarekin eta enpresaburuekin, bere barnean hartuta krisiak gehien kaltetu dituen sektoreei laguntzeko neurri berriak eta egungo zerga-politikaren aldaketa, Nafarroako inbertsiorako eta garapenerako erakargarritasuna itzuliko duena, gizarteak eskatzen dituen premia ekonomiko eta sozialei benetan erantzuteko asmoz.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernu eta Gorte Nagusiak premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetu ditzaten.

EKONOMIA ETA OGASUNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetu dadin Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko honako mozio hau: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernu eta Gorte Nagusiak premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari

eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetu ditzaten". Mozioa 2020ko abuztuaren 21eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/MOC-00080).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da kanabisaren nahiz haren eratorrien kontsumoa eta kontsumorako edukitza despenaliza dezan.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko honako mozio hau: "Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da kanabisaren nahiz haren eratorrien kontsumoa

eta kontsumorako edukitza despenaliza dezan". Mozioa 2020ko irailaren 29ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/MOC-00107).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua egokitu dezan, ekidite aldera kontratazio publikoan hura abusuzko moduan eta proportziorik gabe interpretatzea.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturko honako mozio hau: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euska-

raren erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua egokitu dezan, ekidite aldera kontratazio publikoan hura abusuzko moduan eta proportziorik gabe interpretatzea”. Mozioa 2020ko abenduaren 14ko 140. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/MOC-00137).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen dira toki entitateek Europar Batasunaren Suspertze Funtsean izan beharreko parte-hartzea izan dadin toki administrazioak gastu publikoan duen parte-hartzearen proportzionala.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen dira toki entitateek Europar Batasunaren Suspertze Funtsean izan beharreko parte-hartzea izan dadin toki adminis-

trazioak gastu publikoan duen parte-hartzearen proportzionala, eta 2021eko urtarrilaren 19ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/MOC-00002).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Osasunaren Lurralde arteko Batzordean onets dezan Lyme gaixotasuna nahitaez aitortzeko gaixotasuna dela.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mikel Buil García jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Osasunaren Lurralde arteko Batzordean onets dezan Lyme gaixotasuna nahitaez

aitortzeko gaixotasuna dela, eta 2021eko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/MOC-00009).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeari buruzkoa. Galdera 2020ko uztailaren 28ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatzizko galdera egin du (PES-00145); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Uztailaren 1eko 46/2020 Foru Dekretuaren bitartez kendu egin dira Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeko berariazko betebeharrak. Zergatik?

Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuak beharrezkotzat jo zuen berariazko betekizunak kentzea Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutzari, haiek lanpostuaren egiazko beharretara egokitze aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, Tracasa Instrumental SL enpresa publikoak Trabajos Catastrales SAr egindako kontratazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tracasa Instrumental SL enpresa publikoak Trabajos Catastrales SAr egindako kontratazioei buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 11ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamariquek idatziz erantzuteko galdera egin dudu Tracasa Instrumental SL enpresa publikoak Trabajos Catastrales SA sozietateari egindako kontratazioei buruz (10-20/PES-00186). Horri erantzuteko, ondotik doan informazioa erantsi du Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 30ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Eskatutako informazioa ondotik doazen lerroalde bidez argudiatuta azaltzen da: ez da banakako kontraturik egin Tracasa Mercadok Tracasa Instrumentali egindako lan bakoitzagatik, enpresak berak zein NEKPk aldeztu dutelako aipatu lotura ez zegoela kontratazio publikoaren araudia- ren menpe.

2017ko ekitaldian eta 2018ko maiatzera arte indarrean zegoen Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea.

Arau horretan ez zegoen inolako erabakirik botere adjudikatzailerak berak kontrolatutako enpresa publikoen arteko azpikontratazioari buruz; beraz, kasu honetan, gure ustez, aplikatu beharreko araudia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua zen, bete beharrekoa, kontratazio publikoari buruzkoa, eta 2016an trasposatu behar zen, eta berehala aplikatu behar zen,

Europako zuzenbidearen zuzeneko eraginaren printzipioari jarraikiz.

2014/24/EB Zuzentarauaren 12. artikulua gai hori zehatz-mehatz arautzen du, eta zehazten du sektore publikoko erakundearen artean egindako kontratuak zein kasutan ez dauden kontratazio publikoaren arauen aplikazioaren mende. Beraz, zuzentarau horren 12. artikulua aldaketa garrantzitsu bat ezartzen du botere adjudikatzailerak batek, zuzentaraua aplikatu gabe, zuzenbide publikoko edo pribatuko beste pertsona juridiko bat kontratatu ahal izateko uneak arautzeko orduan.

Ildo horretan, 12. artikuluko bigarren apartatuak Zuzentaraua ez aplikatzeko aukera ematen du kontrolatutako pertsona juridikoak, botere adjudikatzailerak izanik, kontratua kontrolatzen duen botere adjudikatzailerari edo botere adjudikatzailerak berak kontrolatutako beste pertsona juridiko bati kontratu bat adjudikatzen dionean, betiere kontratua adjudikatzen zaion pertsona juridikoan kapital pribatuaren zuzeneko partaidetzarik ez badago. Horretan, salbuespen izanen dira kapital pribatuaren partaidetza-moduak, gehiengo edo gutxiengo kontrolatzeko gaitasunik ez dutenak, baldin eta estatuko lege-xedapenek ezartzen badituzte.

Beraz, salbuespena ente instrumentalei egindako enkarguei ez ezik, beste bi kasuri ere aplikatuko zaie:

- "Alderantzizko kontratuaren esleipena" izenekoak. Horren arabera, kontrolatutako pertsona juridikoak, botere adjudikatzailerak izanik, kontratu bat adjudikatzen dio kontrolatzen duen botere adjudikatzailerari.

- Botere adjudikatzailerak berak kontratuak adjudikatzea kontrolatutako bi barne-erakunderen artean.

Beraz, ikusten dugunez, 2014/24/EB Zuzentarauaren 12. artikulua bere aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu "in house providing" edo sektore publikoko erakundearen arteko harremanak.

Arau hori ikusita, argi dago, gure ustez, onartu egiten dela botere adjudikatzailerak den erakunde batek kontratu bat adjudikatzea bera kontrolatzen duen botere adjudikatzailerak berak kontrolatzen duen pertsona juridiko bati. Halatan, denbora tarte horretan Tracasa Instrumentalen eta Tracasa Mercadoren arteko kontratazioak ez zeuden kon-

tratazio publikoaren arauen aplikazioaren menpean.

Bestalde, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak, 2018ko maiatzaren 7an indarrean sartu zenak, lehen aipatutako 2014/24/EB Europako Zuzentarauaren transkripzio murriztailea egiten du 8. artikuluko laugarren paragrafoan. Transkripzio hori "ohiko funtzionamendua" kontzeptua sartzean datza, eta kontzeptu horrek hainbat interpretazio ekarri ditu.

"Era berean, foru lege honen aplikaziotik kanpo geldituko dira adjudikazio botere berak kontrolatzen dituen pertsona juridikoen arteko kontratuak, betiere kapital pribaturik ez badago kontratuaren adjudikazioa jasotzen duen pertsona juridikoan, eta helburu bakarra delarik haren ohiko funtzionamenduaren beharrei erantzutea".

Legearen idazketak ez du "ohiko funtzionamendua" kontzeptuaren aipamenik egiten, eta, beraz, Tracasa Instrumentalek interpretatzen du salbuespen horrek babesten duela, Tracasa Mercadoren laguntza behar duten zereginak bi enpresen xede sozialaren parte baitira. Beraz, aurreko kasuan bezala, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak indarra hartu zuenetik, Tracasa Instrumentalen eta Tracasa Mercadoren arteko kontratazioak ere ez daude

kontratazio publikoaren arauen aplikazioaren menpean.

Alde horretatik, kontratazioaren araudia aplikatzen ez denez, ez zen erabili behar Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 71. artikuluan aurreikusten diren adjudikazio-prozeduretatik bat ere, ez eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu ere.

Azpimarratu behar da, halaber, Tracasa Mercadoren bazkide bakarra Tracasa Instrumental dela, haren akzio guztiak dituelako, eta Tracasa Instrumentalen bazkide bakarra NEKP dela, zeinaren kapitala osorik harpidetu baitu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak.

Tracasa Instrumentalek Tracasa Mercadori azpikontratatzea araudiaren menpean dagoen ala ez ebazterakoan diren interpretazio desberdinak daudenez, Nafarroako Gobernuak Kontu-hartzailetza Zerbitzuak 2020ko maiatzaren 25ean argitaratutako instrukzio batean ondorioztatu zuen aipatu eragiketak kontratazio publikoaren araudiaren menpean zeudela. Aipatu instrukzioaren ondoren, Tracasari enkarguak betetzeko egin beharreko kontratazioak Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 71. artikuluan ezarritako prozedurak betez egin dira.

Tracasa Instrumental SL

Galdera, etxebizitzak eraikitze eta zaharberritzeko zerbitzu publiko bat abian jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxebizitzak eraikitze eta zaharberritzeko zerbitzu publiko bat abian jartzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 16ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-20/PES-00253 zenbakiko galdera idatzia egin du.

Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

Jakina da gure erkidegoan etxebizitza eskuragarrien eskariaren egoera kezkarria dela, azken urteotan goranzko bilakaera izan duelako. Gaur egun, aurtengo irailaren 1ean, babes ofizialeko etxebizitza bat alokairuan –modalitate desberdinetan– hartu nahi duten eskatzaileen kopurua 10.492 da.

Nafarroako Gobernuak, azken 5 urteetan, aha-lerinak egin ditu etxebizitza arloan lehenagoko politikak aldatzeko, eta, salerosketa sustatzeko politikaren ginetik, alokairu erregimeneko etxebizitza eskuragarrien eskaintza areagotzeko hainbat tresna bultzatzeko. Alde batetik, alokairu

erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen publikorako plan bat abiarazi da, hain zuzen Navarra Social Housing plana, hasieran 524 etxebizitza eskaintzen dituen Iruñerriko sustapenetan.

Hala ere, horrekin batera, jada 2015etik aurrera, bultzada handia eman zitzaion Nasuvinsaren alokairu-poltsari, aldatu baitziren jabeen eskaintza beharrek baldintzak; horrela, gutxi gorabehera 475 etxebizitzaren ordez, 2020an 754 etxebizitza izatea lortu dira, hau da, 279 gehiago edo, bestela esanda, % 58,73 gehiago.

Horrez guztiaz gain, legealdi honetan, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak etxebizitza hutsen errolda egiteari ekin dio kasu horiek zenbatzeko, baita, batez ere, gaur egun erabili gabe dauden etxebizitza horiek "aktibatzea" lortzeko ere. Horri dagokionez, dagoeneko harremanetan jarri da Nafarroako etxebizitza hutsen titularrak diren finantza-erakundeekin, higiezin filialekin eta abarrekin, eta guztira 596 etxebizitza identifikatu dira foru lurralde osoan. Horiei dagokionez, Nasuvinsako teknikariak ikuskatze lana egiten ari dira, arreta berezia jarrita egiaztatutako eskaria daukaten herrietan –etxebizitza-eskatzailen kopuruaren arabera– kokatutako etxebizitzetan: gutxi gorabehera 278 etxebizitza dira.

Bestalde, departamentuak jarraitzen du identifikatzen hutsik dauden etxebizitzak, bai edukitzaile handienak, bai 3-19 etxebizitzaren jabe diren pertsonenak. Horretarako, Nafarroan dauden etxebizitza guztien ur-kontsumoari buruzko informazio xehea biltzen ari da, "jenderik gabe" egotearen zantzuak detektatu ahal izateko, eta, hortik abiatuta, jenderik gabeko etxebizitza dela adierazteko prozedura hasteko, eta etxebizitza erroldan sartu ahal izateko.

Era berean, Gobernuak, jenderik gabeko etxebizitzak aktibatu nahian, 145 etxebizitza inguruk osatzen duten bidezainen parkea ikuskatzeko lanei ekin die, kokapen horietan dauden eta erkidegoarentzat interes estrategikoa izan dezaketen etxebizitzak aktibatzearen kostua ebaluatzeko.

Halaber, etxebizitza hutsak dituzten udal batzuekin koordinatuta ari da etengabe, hitzarmenen bidez etxebizitza horiek alokairuan ematea lortzeko. Baditugu berariazko adibideak, hala nola Auritzen, Uxuen, Jaurrietan, Aurizberrin eta beste herri batzuetan birgaitze-lanak, dagoeneko bukatuak edo proiektu edo obrak adjudikatuzko prozesuan daudenak.

Aurreko guztia abiapuntu hartuta, Gobernuak, bere aurrekontuaren bidez, baita Nasuvinsa enpresa publikoaren aurrekontuaren bidez ere, berariazko programak ezartzeko asmoa du, hutsik dauden etxebizitza horiek, beren jatorria edozein dela ere, eskatzaileek ordain dezaketan alokairuan jartzea ahalbidetzeko. Horrela, etxebizitzak birgaitzeko programak abiatuko dira, eta horien kostuak Nasuvinsak kobratutako alokairuen bitartez amortizatuko dira.

Hori dela eta, erantzuna baiezkoa da: Nafarroako Gobernuak egokitzen ari da bere tresna eta estrategiak, dagoeneko eraikita dauden etxebizitzak, gaur egun erabiltzen ez direnak, berriz erabiltzen hasteko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Mina Muga proiektua leheneratzeko planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Mina Muga proiektua leheneratzeko planari buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 25eko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra Talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (238_10-20-PES-00206) Mina Muga proiektuari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

– Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko (MITERD) Energia Politika eta Meatzeetarako Zuzendaritza Nagusia izapidetzen ari da Mina Muga Proiektuaren (Nafarroa eta Aragoi hartzen ditu) Lehengoratzeko Plana,

Erauzketa-industrien hondakinak kudeatu eta meategietako jarduerak eragindako tokiak babesu eta birgaitzeari buruzko ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuaren arabera.

– Izapidetze horren barruan, ministerio horrek kontsultak egin dizkie administrazioko hainbat organori, 975/2009 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluari jarraituz. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari kontsulta egin zaio, eta txostena egin du 2020ko uztailaren 31n.

Zuzendaritza Nagusi honek, bere eskumenen barruan, Lehengoratzeko Planari buruz egindako txostena erantsi da (Eranskina_erantzuna_PES_00206_MinaMuga).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

Galdera, Ikaselkar argitaletxearen Txanela Proiektuko testuliburuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ikaselkar argitaletxearen Txanela Proiektuko testuliburuei buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 1eko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioko foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak 10-20-PES-00212 idatzizko galdera egin du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Honekin batera doa 2020-2021 ikasturtean Lehen Hezkuntzako seigarren mailan Ikaselkar argitaletxearen Txanela Proiektuko testuliburuak erabiltzen ari diren Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta itunduen zerrenda.

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

2020-21 ikasturtean Lehen Hezkuntzako seigarren mailan ikasleak argitatearean Txanela proiektuko testu liburua erabiltzen ari diren Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta itunduen zerrenda.

ARGITALETXEA	ISBN	LIBURUA	IKASMAILA	IKASGAIA	EGOITZA
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gizarte Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Antsoingo Ezkaba HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Antsoingo Ezkaba HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Agoiko San Miguel HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gizarte Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Agoiko San Miguel HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834780	Txanela LH 6. irakurgaiak 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Euskara eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Agoiko San Miguel HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497831147	Txanela LH 6. Matematika Baga-Bigla 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Matematika Lehen Hezkuntzako 6.a	Auriko HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	8483314828VR	(ZAHARRA-BERREZARRIA)-Txanela 6. Musika - Lan koardemoa	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Arte-hezikuntza Lehen Hezkuntzako 6.a	Berriozarko Mendialdea II HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497831147	Txanela LH 6. Matematika Baga-Bigla 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Matematika Lehen Hezkuntzako 6.a	Eroko San Esteban HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Lizarrako Remontival HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834780	Txanela LH 6. irakurgaiak 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Euskara eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Lizarrako Remontival HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497835862	Txanela LH 6. Gaztelania 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gaztelania eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Lizarrako Remontival HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Etxarri-Aranazko S. Donato HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834780	Txanela LH 6. irakurgaiak 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Etxarri-Aranazko S. Donato HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497835862	Txanela LH 6. Gaztelania 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gaztelania eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Etxarri-Aranazko S. Donato HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834780	Txanela LH 6. irakurgaiak 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Uharteko V. Blanca HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834780	Txanela LH 6. irakurgaiak 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Iturmendiko Arrano B. HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Iturmendiko Arrano B. HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Iturmendiko Arrano B. HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Iturmendiko Arrano B. HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834780	Txanela LH 6. irakurgaiak 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Lakuntzako Herri Eskola HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gizarte Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Lakuntzako Herri Eskola HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. Matematika Baga-Bigla 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Matematika Lehen Hezkuntzako 6.a	Lakuntzako Herri Eskola HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	8497834780VR	(ZAHARRA-BERREZARRIA)-Txanela 6. Irakurgaiak	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Euskara eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Lakuntzako Herri Eskola HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gizarte Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Larraitzarko HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497831147	Txanela LH 6. Matematika Baga-Bigla 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Matematika Lehen Hezkuntzako 6.a	Larraitzarko HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497831147	Txanela LH 6. Matematika Baga-Bigla 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Matematika Lehen Hezkuntzako 6.a	Luzaldeko HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Euskara eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Otsagabiako HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Otsagabiako HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834780	Txanela LH 6. irakurgaiak 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Otsagabiako HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497835862	Txanela LH 6. Gaztelania 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gaztelania eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Otsagabiako HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497831147	Txanela LH 6. Matematika Baga-Bigla 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Matematika Lehen Hezkuntzako 6.a	Otsagabiako HLHHPa
Elkar-ikasitokak Zerbitzuak S.L. (kaselkar)	9788497834650	Txanela LH 6. ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Olaztik D. Bados HLHHPa

ARGITALETXEA	ISBN	LIBURUA	IKASMAILA	IKASGAIA	EGOITZA
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497831147	Txanela LH 6. Matematika Baga-Biga 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Matematika Lehen Hezkuntzako 6.a	Olaztiko D. Bados HLHlPa
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	8497834780VR	(ZAHARRA-BERREZARRIA)-Txanela 6. Irakurgaiak	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Euskara eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Olaztiko D. Bados HLHlPa
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	8483314828VR	(ZAHARRA-BERREZARRIA)-Txanela 6. Musika - Lan koaderno	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Arte-hezkuntza Lehen Hezkuntzako 6.a	Iruñeko HLHlPa Bernart Etxepare HLHlPa
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497831147	Txanela LH 6. Matematika Baga-Biga 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Matematika Lehen Hezkuntzako 6.a	Saldiasko HLHlPa
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497834650	Txanela LH 6. Ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gizarte Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Uharte Arakigo S. Miguel HLHlPa
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497834650	Txanela LH 6. Ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Uharte Arakigo S. Miguel HLHlPa
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497834780	Txanela LH 6. Irakurgaiak 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Euskara eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Uharte Arakigo S. Miguel HLHlPa
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497834438	Txanela LH 5. Gaztelania 5 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gaztelania eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Uharte Arakigo S. Miguel HLHlPa
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497834650	Txanela LH 6. Ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Euskara eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Berako Labiaga Ikastola
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497834650	Txanela LH 6. Ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Berako Labiaga Ikastola
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497834650	Txanela LH 6. Ikaslearen liburua 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gizarte Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Berako Labiaga Ikastola
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497834780	Txanela LH 6. Irakurgaiak 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Berako Labiaga Ikastola
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497834780	Txanela LH 6. Irakurgaiak 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Euskara eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Berako Labiaga Ikastola
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497834780	Txanela LH 6. Irakurgaiak 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gizarte Zientziak Lehen Hezkuntzako 6.a	Berako Labiaga Ikastola
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497835862	Txanela LH 6. Gaztelania 6 (6. pack-a)	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Gaztelania eta Literatura Lehen Hezkuntzako 6.a	Berako Labiaga Ikastola
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497831147	Txanela LH 6. Matematika Baga-Biga 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Matematika Lehen Hezkuntzako 6.a	Berako Labiaga Ikastola
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	9788497831147	Txanela LH 6. Matematika Baga-Biga 6	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Matematika Lehen Hezkuntzako 6.a	Lodosako Ibaialde Ikastola
Elkar-ikastolak Zerbitzuak S.L. (Ikaslekar)	8483314828VR	(ZAHARRA-BERREZARRIA)-Txanela 6. Musika - Lan koaderno	Lehen Hezkuntzako 6. maila-D	Arte-hezkuntza Lehen Hezkuntzako 6.a	Lodosako Ibaialde Ikastola

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.3 artikulua ez bete- tzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.3 artikulua ez betetzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 1eko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-20/PES-00215), Parlamentuko erregistroan 5232 irteera-zenbakia duena, irailaren 29koa, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.3 artikulua ez betetzea dela eta. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko

8/2009 Foru Legearen 12.3 artikulua honako hau xedatzen du: "Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa Administrazio Kontseiluko lehendakariak, zuzendari nagusiarekin, gutxienez ere urtean behin egingen du agerraldia Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Batzordean, urteko aurreikuspenei buruz eta kasuko ekitaldian eginiko kudeaketari buruz informatzeko. Korporazioa osatzen duten sozietateei buruz ere informatuko du. Lehendakariak Korporazioko zuzendari nagusia izendatzen edo ordeztzen denean ere egingen du agerraldia."

Betebehar hori betetz, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren zuzendari nagusia izendatu bezain laster, hura Parlamentuan agertzeko eskatu zen.

Erakunde horretan, prestasunaren arabera, agerraldia urriaren 21ean egingen zela ezarri zen, eta egun horretan Administrazio Kontseiluko lehendakaria zuzendari nagusiarekin batera agertu zen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2020ko azaroaren 11n

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, Trenasa enpresak jasotako dirulaguntza publikoei eta Vectia enpresan egindako inbertsioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Buil García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Trenasa enpresak jasotako dirulaguntza publikoei eta Vectia enpresan egindako inbertsioei buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 9ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García-k 10-20 PES-00222 idatzizko galdera aurkeztu du; haren bidez jakin nahi du zein diren Trenasa enpresak 2006tik jasotako dirulaguntza publikoak, bai eta Vectia enpresan egindako inbertsio publikoen zenbatekoak ere. Hona hemen Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak horri buruz informatu beharrekoa:

Lehenik eta behin, adierazi behar da Trenes de Navarra SA (Trenasa) CAF taldearen filial bat dela, eta bere jarduera nagusia CAFerako tren-

ibilgailuak diseinatu, eraiki, muntatu, konpondu eta probatzea dela, baita autobus elektrikoen txasisak eta azken akaberak egitea ere, CAF taldeko (lehen Vectia, orain Solaris) autobusen atalerako.

Bestalde, CAFen eta Sodenaren partaidetza zuen sozietate bat zen Vectia, Castejongo Trenasaren instalazio berberetan kokatua, eta bere jarduera autobus elektrikoak diseinatzea, fabrikatzea eta merkaturatzea zen, bai eta jarduera osagarriak egitea ere, hala nola haiek puntuan jartzea eta mantentzea eta konponketak egitea. 2018an, CAFek Solaris Bus & Coach erosi zuen, hiriko mugikortasun elektriko jasangarriaren (batez ere hiriko autobus elektrikoak) sektoreko Europako liderra, eta 2019an Vectia Solaris taldearen barruan sartu zen, Solaris taldearen filial espainiarren —Solaris Ibérica SAre— eta Vectiaren arteko bat-egitearen bidez. Horren ondorioz, Solaris Ibérica SA berria sortu zen, egoitza Castejonen izaten jarraitzen duena.

Vectia Mobility SL enpresan egindako inbertsio publikoaren xehetasunari dagokionez (dirulaguntzak, partaidetzak, abalak), honako hauek dira ordaindutako dirulaguntzak:

Noiz eman den	Kontzeptua	Ordaindutako zenbatekoa	Ordainketaren data
2017	Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna sustatzeko laguntzak	4.500,00	2017/12/28
2017	Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna sustatzeko laguntzak	15.383,25	2017/12/28
2018	Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna sustatzeko laguntzak	2,101,42	2019/01/30
	GUZTIRA	19.885,77	

Partaidetzei dagokienez, Sodenak 7.050.000 euroko ekarpena egin dio VECTIAREN kapitalari enpresan duen partaidetzagatik, 3,6M euro Vectia R&D, AIEri eta 3,45M euro Vectia Mobility SLri:

– 2M euro partaidetza hartzeko unean, 2016ko urrian.

– 2M euro 2017ko lehen hiruhilekoan.

– 2M euro 2017ko bigarren seihilekoan.

– 450.000 euro 2018ko ekainean.

– 600.000 euro 2018ko urrian.

Trenes de Navarra SARI azken 13 urteetan bideratutako laguntza publikoen xehetasunari dagokionez, honako hau jakinarazten da:

Noiz eman den	Kontzeptua	Ordaindutako zenbatekoa	Ordainketaren data
2007	Enpresentzako dirulaguntzak, I+G+b proiektuak, patenteak eta bideragarritasun-azterlanak direla eta	466.347,00	2008/01/23
2007	Enpresentzako dirulaguntzak, I+G+b proiektuak, patenteak eta bideragarritasun-azterlanak direla eta	115.240,00	2008/01/23
2008	Itzuli beharrik gabeko laguntzak, inbertsio eta enpleguagatik	1.091.250,00	2008/11/26
2009	Itzuli beharrik gabeko laguntzak, inbertsio eta enpleguagatik	153.258,00	2009/07/03
2009	Erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko programa	1.000,00	2009/12/30
2010	Enpresentzako dirulaguntzak, I+G+b proiektuak, patenteak eta bideragarritasun-azterlanak direla eta	13.590,00	2010/11/26
2010	Erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko programa	2.000,00	2010/12/22
2011	Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak, inbertsioarengatik (eremu lagunduko araudi berria)	357.000,00	2011/12/09
2011	Erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko programa	600,00	2011/12/14
2012	Enplegu Plana. Erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko programa	2.400,00	2012/11/21
2013	Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak, inbertsioarengatik (eremu lagunduko araudi berria)	236.386,69	2016/03/26
2016	Ekintzailletza plana. Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasunaren sustapena PO FEDER 2014-2020 Nafarroa	15.222,15	2017/01/30
2017	Lan osasunaren plana betetzeko inbertsioak	3.093,00	2017/12/28
2017	Ekintzailletza plana. Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasunaren sustapena PO FEDER 2014-2020 Nafarroa	22.725,18	2017/12/28
2018	I+G proiektuetarako dirulaguntzak, Nafarroako 2014-2020 EGEF PE	5.315,76	2018/12/21
2019	I+G proiektuetarako dirulaguntzak, Nafarroako 2014-2020 EGEF PE	5.268,66	2019/11/06
2019	I+G proiektuetarako dirulaguntzak, Nafarroako 2014-2020 EGEF PE	9.183,94	2019/12/30
2020	I+G proiektuetarako dirulaguntzak, Nafarroako 2014-2020 EGEF PE	9.136,84	Ordaintzeko dago.
	GUZTIRA	2.509.017,22	

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, baheketa masiboak egiteko irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, baheketa masiboak egiteko irizpideei buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 16ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20/PES-00244), jakin nahi baitu zein diren “pandemian zehar, Osasun Departamentuak hainbat herritan edo kolektibotan baheketa masiboak egiteko jarraitu dituen irizpideak”. Hona horri buruz Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak helarazi beharreko informazioa:

Osasun Departamentuak Nafarroan garatu duen baheketa-estrategia zabala —detekzio goiztiarreko eta udal agenteek erkidegoan esku hartzeko sistemaren eremu mistoan kokatzen den tresna— eguneratzen joan da, esperientzian, ebidentzia zientifikoa eta Osasun Ministerioarekiko etengabeko lankidetzan oinarrituta. Apustua, zeina funtsezkoa baita pandemiari eusteko eta intzidentzia-puntu berriei aurrea hartzeko, parametro kuantitatiboak (metatutako intzidentzia osoa eta 65 urtetik 7 eta 14 egunera bitarteko adinekotengatzen, positibotasuna, joera, trazabilitatea, ospitaleko eta ZIUen okupazioa eta gune soziosanitarioetan agerraldirik dagoen ala ez) eta kualitatiboak konbinatuz planteatu da beti; hain zuzen ere, talde teknikoek zehaztutako parametroak, zeinek ad hoc egoera ere aztertzen baitute, hura adinaren arabera segmentatuz —normalki— biztanleria orokorrari probak egiteko kasuan.

Norabide hori ez da berria Nafarroan; izan ere, uda hasieratik mota horretako jarduerak egiteko tradizio nabarmena dugu; foru-lurralde osoan zabaldu diren gailuak dira, eta 11.000 proba baino gehiago egin dira. Ekainean egin zen lehen baheketa (150 proba) Berako lantegi batean, Lesakan agerraldi bat izan ondoren. Gero, eskema hori errepikatu zen Zangozako beste enpresa batean (181 proba); lan-arloko baheketarik garrantzi-

tsuena, ordea, Tuterako Uvesa izan zen, 640 proba egin baitziren. Geroago, Mendillorriko gazteen arteko baheketa garrantzitsua iritsi zen (1.145 proba). Leitzan ere baheketa handia egin zen, 1.882 probarekin. Zarrakaztelun (1.112 proba) sistema hori sasoikako langileei lotuta erabili zen batez ere, eta sektore horrekin lan egin zen eta beste leku batzuetako nekazaritzakanpainak zirela eta. Geroago, ezohiko esku-hartzeen testuinguruan, itxitura perimetralarekin nahiz hura gabe, zenbait herritan egin ziren baheketak: Tuterako (507), Valtierra (230) eta Cadreita (300 proba), eta horien ondoren Ribaforada (2.071 proba), Murchante (1.780 proba), Viana (1.736 proba) eta Cascante (daturik gabe erantzun hau emateko unean).

Azken hilabeteetan, halaber, esku-hartze komunitarioko ildo osagarri bat indartu da, udalekiko lankidetzak logikotik harago doana, hala nola parte-hartze soziala sustatzea boluntariorik gabeko —gehienetan gazteenak— inplikaturik baheketen antolaketan bertan; lan hori normalean Larrialdietako Zerbitzu Berezikoko operazio berezien taldeak egiten du, kasuko osasun barrutiko oinarritzko osasun laguntzako langileen edo, halakorik badago, erreferentziako ospitalearen laguntzarekin.

Herrietan eta enpresetan zein lan-esparruan —azaroan, adibidez, Mendabian, Azagran, Milagron, Larragan eta Lazagurrian egin dira baheketak, besteak beste— egindako populazio-baheketak ez dira bakarrak izan. Ildo horretan, hainbat jardueratan frogatu den bezala, eremu soziosanitarioa lehenetsuena da Departamentuarentzat. Apustu irmoa da sektorekako eta populazioko baheketak aldian-aldian egiten sakontzea eta sistematizatzea, gure miaketa-teknika osatzeko; hala ere, gure teknikak % 70etik gorako trazabilitatea bermatzen digu.

Bestalde, hilabete honetan beste etapa bat hasi da, urriaren 30etik aurrera test antigenoak sartu baitira, zeinak PCRen osagarriak diren eta oinarritzko osasun arretaren sarean orokortu diren. Oso garrantzitsua da haiek abian jartzea kutsadura-katea azkar eteteko, eta harrera ona izan du bai profesionalen artean (prozesua arindu eta konpontzeko gaitasuna hobetu du), bai pazienteen artean (minutu gutxiren buruan infektatuta dauden ala ez jakin dezakete); horrek,aldi berean, isolamenduen, berrogeialdien eta abarren kontu guztiak errazten ditu, eta, jakina, faktore sinergiko

gehiago biltzen dituzten emaitzak ere pozgarriak izaten ari dira, azken asteetan metatutako datuen arabera, intzidentzia-jaitsiera nabarmenarekin: 100.000 biztanleko 1.000 kasutik gora egon ginen, eta orain 400eko atalasearen azpitik gaude.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

Galdera, energia berriztagarria sortzeko plantak paratzea modu ordenatuan sustatzeko xedez tresna publiko bat sortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, energia berriztagarria sortzeko plantak paratzea modu ordenatuan sustatzeko xedez tresna publiko bat sortzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 16ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (10-20/PES 252). Hauxe da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariaren erantzuna:

Energia berriztagarria sortzeko plantak paratzea modu ordenatuan sustatzeko xedez tresna publiko bat sortzeari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera eta borondatea hura abiarazteari buruz?

Ondokoa jakinarazten dizugu honako erantzun honen bidez:

Gaur egun, Nafarroako Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko lege-proiektua egiten ari da. Bertan, plangintza-, ezarpen- eta ebaluazio-tresnak definitzen dira, eta klima-aldaketaren eta energiaren arloko plangintza estrategikoa nabarmentzen da, lotutako politika sektorialekin koordinatuta. Parte-hartze publikorako zabalduetako lege-aurreproiektuan, Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentzia (ATENA) eta Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoa (OCCN)

sortzea jasotzen da, bai eta Klima Funtsa ere, plan eta ekimenak eta karbonoaren inguruko aurrekontuak batera finantzatzeko tresna gisa.

Zehazki, aurreproiektu horretan honako hau ezartzen da:

9. artikulua-Plangintzarako, inplementaziorako eta ebaluaziorako tresnak.

Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren plangintza-, ezarpen- eta ebaluazio-tresnak izanen ditu foru lege honen 1. artikuluan aitortutako xedea eta helburuak betetzeko, eta genero-ikuspegia jasoko du horietan. Honako hauek dira tresna horiek:

b) Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentzia, energiaren arloko planetarako tresna exekutibo gisa.

11. artikulua-ATENA-Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentzia.

1. Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentziaren xedea izanen da erantzun eraginkor eta efizientea ematea Nafarroako trantsizio energetikoaren arloan dauzkan beharrei. Bereziki, honako hauek esleituko zaizkio:

a) Nafarroako energia-plangintza.

b) Energia berriztagarriak, aurrezpena, energia-eraginkortasuna eta energiaren kudeaketa adimenduna sustatzea.

2. Bere helburuak betetzeko, Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentziak honako eginkizun hauek beteko ditu, bere estatutuetan esleitzen zaizkionak alde batera utzi gabe:

a) Nafarroako Energia Plana kudeatzea, horren barne dela haren diseinua eta lanketa, neurriak eta jarduerak proposatzea eta gauzatzea, eta betetze-mailaren jarraipena egitea.

h) Nafarroako Energia Azpiegituren Planak diseinatzen eta haien jarraipena egiten laguntzea.

3. Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentziak foru-sektore publiko instituzionala enpresa-entitate publiko gisa integratuko du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean aurreikusitakoaren arabera.

4. Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentzia sortuko da foru dekretu bidez, eta haren estatutuak onetsiko dira.

5. Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentzia atxikita dagoen eta energiaren arloko eskume-

nak dituen Nafarroako Gobernuako Departamentuaren plangintza eta politika globalaren arloko jarraibideen mende egonen da.

Testu horrek aldaketak izan ditzake oraindik barne-araugintzako prozesuan, Gobernu Kontseiluak foru lege proiektua, zeina Parlamentuan aurkeztuko baita, onetsi aurretik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 10ean

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2021 Foru Lege-dekretua, urtarrilaren 13koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko urtarrilaren 28an egindako bileran, baliozkotu zuen 1/2021 Foru Lege-dekretua, urtarrilaren 13koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Foru Lege-dekretua 2021eko urtarrilaren 18ko 11. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2021eko urta-

rrilaren 22ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias